



# 2016ko MEMORIA

## 2016ko Kudeaketa plana

TRAFIKO ZUZENDARITZA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

SEGURTASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

AURKI



# BIDEA

<b>1. 2016KO KUDEAKETA-PLANA .....</b>	<b>7</b>
▲ Misioa	
▲ Bisioa	
▲ Estrategiak eta jarduera-ildoak	
<b>1.1 2016KO JARDUERAK .....</b>	<b>12</b>
▲ Aholkularitza juridikoa	
▲ Bide-segurtasuna eta trafikoa ikertzea	
▲ Bide-prestakuntza eta bide-heziketa	
▲ 011 Trafikoko arreta-zerbitzua	
▲ Neguko bidezaintza plana	
▲ Oporretako irteera eta itzulera operazioak	
<b>1.2 BIDE-SEGURTASUNA ETA TRAFIKOA IKERTZEA .....</b>	<b>18</b>
<b>1.3 SARE SOZIALAK, APP ETA WEB-ORRIA .....</b>	<b>20</b>
<b>1.4 HEDABIDEAK .....</b>	<b>22</b>
▲ Informazioa	
▲ Publizitate-kanpainak	
<b>1.5 ARGITALPENAK.....</b>	<b>24</b>
▲ Monografikoak eta azterlanak	
▲ Kanpainak	
<b>2. EUSKADIKO ERREPIDEETAKO ISTRIPU-TASAREN BALANTZEA, 2016AN .....</b>	<b>27</b>
<b>2.1 ERTZAINZAREN BALANTZEA .....</b>	<b>28</b>
<b>2.2. ERTZAINZAREN ETA UDALTZAINGOEN BALANTZEA .....</b>	<b>30</b>





**2016KO**  
MEMORIA

## AGURRA

Aurkezten dugun memoria honek, 2015-2020 Bide-Segurtasun eta Mugikortasun Seguru eta Sostengarriaren Plan Estrategikoaren markoan, 2016an Segurtasun Saileko Trafiko Zuzendaritzak burututako ekintza nagusiak biltzen ditu.

Gainera, gure errepideetako siniestralitatearen 2016ko balantzea eskaintzen du dokumentuak. Adierazleek, 2015koekin alderatuta, %11,4ko jeitsiera erakusten dute hildakoen kopuruan eta %6,3koa zauritu larrien kasuan.

Nolanahi ere, bide-segurtasunaren alorrean ez dugu arreta galdu behar, oraindik lan asko geratzen da-eta egiteko. Horregatik, behar-beharrezkoa da inplikaturako eragile guztien partehartzea, EAEko errepideetako siniestralitatea oraindik ere gehiago jeisteko eta bide-segurtasunaren alorrean ematen ari den aldaketa kulturala sendotzeko.

2015-2020 Bide-Segurtasun eta Mugikortasun Seguru eta Sostengarriaren Plan Estrategikoak erakusten digu bide-orria. Egitasmo anbiziotsua da, gure bideak erabiltzen dituzten oinezko, txirrindulari, motorzale eta gainerako ibilgailu-gidariei zuzendua, euren jokabidea gero eta seguruagoa eta sostengarriagoa izan dadin.

Horretarako, begirada 2020an jarrita, pauso irmoak ematen jarraituko du Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saileko Trafiko Zuzendaritzak, mugikortasun segurua eta sostengarria helburu duela. Erronka garrantzitsua da.




**Estefanía Beltrán de Heredia Arroniz**  
*Segurtasun Sailburua*





# 2016KO KUDEAKETA- -PLANA



## MISIOA ▶

Eusko Jauriaritzaren Trafiko Zuzendaritzaren misioa bide-segurtasuna eta mugikortasun segurua eta iraunkorra sustatzea da, Euskadiko bide-sareko erabiltzaileentzat.

Hori dela eta, prebentzioa, parte-hartzea eta gardentasuna oinarri dituen baloreen kultura eta kontzientziazioa bultzatzen ditugu. Gainera, trafikoaren arintasuna eta segurtasuna kudeatzen ditugu.

## PLANAREN BISIOA ▶

Euskadi mugikortasun seguruaren eta iraunkorraren arloan erreferente bihurtzea, bide-segurtasunaren eta trafikoaren kudeaketaren arloan estrategia eraginkorrek erabiliz. Horretan, herritarrek portaera arduratsua izaten dute eta erakunde publikoek, agente pribatuen lankidetzarekin, trafiko-istripuen kopurua eta larritasun-maila murrizteko modu koordinatuan eta eraginkorrean lan egiten dute.



## ESTRATEGIAK ETA JARDUERA-ILDOAK

Trafiko Zuzendaritzak BSMSIPE 2015-2020an estrategia hauek definitu ditu:



**1**  
**BIDE-HEZIKETA**



**2**  
**BIDE-SEGURTA-  
SUNA ETA  
TRAFIKOA  
IKERTZEA**



**3**  
**TRAFIKOA  
KUDEATZEA**



**4**  
**AINZA  
ETA KONTROLA**



**5**  
**KUDEAKETA-  
-EREDU AURRE-  
RATUA**

## BIDE-HEZIKETA



“Bide-heziketa” izeneko estrategiak hainbat jarduera-ildo artikulatu behar ditu, sentsibilizazioa, heziketa eta pres-takuntza erabiliz, bide-segurtasuneko maila altuagoak lortzeko eta herritarrak mugikortasun seguru eta iraunkorraren inguruan kontzientziatzeko. Horretarako, Euskadiko giza agenteekin lankidetzan aritu beharko du.

## BIDE-SEGURTASUNA ETA TRAFIKOA IKERTZEA



“Bide-segurtasuna eta Trafikoa ikertzea” izeneko estrategiak hainbat jarduera-ildo eta ekimen artikulatu behar ditu, bide-segurtasuna, trafikoa eta mugikortasuna hobetzen lagunduko duten ikerketa-proiektuak identifikatzeko eta garatzeko helburua dutenak. Horretarako, joera edota aurrerapen nagusiak kontuan hartu beharko ditu, baita Euskadiko datuak jasotzeko eta aztertzeko sistemak sortzen dituen datuak eta informazio guztia ere.

## TRAFIKOA KUDEATZEA



“Trafikoa kudeatzea” izeneko estrategiak EAEko hiriarteko trafikoaren eta zirkulazioaren egoera, denbora errealean egiten den monitorizazioaren bitartez, ikuskatzeko jardue-ra-ildo eta ekimenak artikulatu behar ditu. Horrela, batetik, trafikoa ordenatu eta erregulatu ahal izateko unean-unean egokitzen diren estrategiak eta neurriak hartuko dira, auto-ilarak prebenitu eta mugikortasuna eta segurtasuna bermatzeko; eta bestetik, bide-sareko hiriarteko bideetan gertatzen diren trafiko-gertakariak antzeman eta horiei berehalako erantzuna emango zaie. Horretarako, ezarritako protokoloek jarraituko zaie eta, hala badagokio, horretarako dauden baliabideak koordinatuko dira.

## ZAINZA ETA KONTROLA



“Zaintza eta Kontrol” izeneko estrategiak trafikoaren, zirkulazioaren eta bide-segurtasunaren arloan ezegokiak diren portaerak berrezteko jarduera-ildoak eta ekimenak artikulatu behar ditu, betiere, baliabide publikoak modu eraginkorrean kudeatuz.

## KUDEAKETA-EREDU AURRERATUA



“Kudeaketa-eredu Aurreratua” izeneko estrategiak, Gobernantzan oinarritutakoak, hauxe ekartzen du: beste adminis-trazio eta erakunde publiko nahiz pribatu batzuekin trafiko-eta errepide-alorreko partaidetza, lankidetzeta eta aliantzak bultzatzea, bide-segurtasuna kontrolatu eta zaintzeko eginkizuna bete ahal izateko. Horrez gain, estrategia horren barruan sartuta daude Trafiko Zuzendaritzaren barruan prozesuen araberako kudeaketa definitzea eta ezartzea eta etengabeko hobekuntza eta berrikuntza ezartzeko beharrezko mekanismoak.





# 1.1

## 2016KO JARDUERAK

### AHOLKULARITZA JURIDIKOA

*Aholkularitza Juridikoak, oro har, Trafiko Zuzendaritzari, eta bereziki Trafikoko Lurralde Bulegoei laguntza juridikoa ematen die gai hauen inguruan: baimenak, jakinarazpenak, zehapenak, ibilgetuak, gidari-eskola partikularren kontrola eta ikuska-pena, obra-jarraibideak, data murriztaileetan zirkulazio-baimen bereziak, eta trafikoaren gainean eragina izan dezaketen kirol-proben, lasterketen, lehiaketen eta txapelketen baimenak.*

#### BAIMENAK

Aholkularitza juridikoak ezaugarri teknikoengatik edo garraiatzen duten zama banaezinagatik arauz ezarritako gehienezko masak eta neurriak gairatzen dituzten ibilgailuen baimen bereziak izapidetzen ditu.

- **BAIMENAK:** 2016an izapidetutako espediente kopurua: **8.599**
- **GIDARI-ESKOLA PARTIKULARRAK:** Gidari-eskola partikularrak baimentzea, kontrolatzea eta ikuskatzea. Alta-, baja- eta aldatze-espedienteak eskola, langile eta ibilgailuei dagokienez: **492**
- **Lokalak eta ibilgailuak ikuskatzea:** **216**
- **Zirkulazio-baimen bereziak data murriztaileetan:** **262**

#### ZEHAPEN PROZEDURA

Zehapen-prozedurak Trafikoko Lurralde Bulegoek izapidetzen dituzte, edo TAIZAK, Trafikoko Arau-hausteak Izapidetzeko Zentro Automatizatuak. Zentro hori Euskadiko Trafikoa Kudeatzeko Zentroaren egoitzan dago, Txurdinagan (Bilbao). TAIZAK modu bateratuan eta denbora errealean kudeatzen du radar finko guztien bitartez lortzen duen informazio guztia, arau-hausteak egiaztatzen ditu, ibilgailuaren datuak DGTko erregistrokoekin alderatzen ditu eta berehala, arau-hausleari jakinarazteko prozesuari hasiera ematen dio. Hori guztia egiteko, errepidean bertan dauden dispositiboak TAIZAKo operazio-zentroarekin konektatzen dituen informatika- eta telekomunikazio-sistema bat erabiltzen du.

#### KIROL PROBAK

Trafiko Zuzendaritzaren aholkularitza juridikoaren ardura da EAEko herriz kanpoko bideetatik guztiz edo zati batean igarotzen diren lasterketa, lehiaketa, txapelketa eta, oro har, kirol-probetarako baimenak ematea eta horiei buruzko informazioa ematea.


**Baimenak EAEn: 32**

**DGTren baimenak: 30**


EAEn egindako kirol-probetan mobilizatu ziren errekurtsuak (Ertzaintzaren laguntza-zerbitzuari buruzko datuak dira, eta ez Udaltzaingoenak):



**1.867**  
AGENTE



**251**  
AUTO



**1.356**  
MOTOR

### ZAINZA- ETA KONTROL-KANPAINAK

Trafiko Zuzendaritzak urtero zaintza- eta kontrol-kanpainak egiteko egutegia zehazten du. Jarduera-ildo horren xedea trafikoaren, zirkulazioaren eta bide-segurtasunaren arloko jokabide desegokiak berreztea da eta horretarako, indarrean dagoen araudia betetzen dela modu bateratuan, jarraian eta egokian kontrolatzeko baliabideak ezartzen ditu.

Ertzaintzak 2016an prebentziozko jarduera hauek egin zituen:

Prebentziozko alkoholemia-probak (78.943), prebentziozko droga-probak (3.589), IATren kontrolak (5.396 ibilgailuri egin zaie), kaskoa eta segurtasun-uhalaren kontrolak (25.934 ibilgailuri egin zaie), abiadura-kontrolak (1.775.202 ibilgailuri egin zaie).

Eta horrez gain, istripu edo arau-hausteen ondoriozko jarduera hauek:

- Istripuen ondoriozko droga-probak: **176**
- Arau-hausteen ondoriozko droga-probak: **316**
- Istripuaren ondoriozko alkoholemia-probak: **8.879**
- Arau-hausteen ondoriozko alkoholemia-probak: **276**

### LANKIDETZA-HITZARMENAK ENTITATE ETA ERAKUNDEEKIN

2016an, bide-segurtasuna hobetzeko helburuarekin, trafikoari eta errepideei buruzko gaietarako eta bide-informazioa trukatzeko Arabako Foru Aldundiarekin egindako hitzarmena dela eta, Jaurkitzaren Kontseiluak onetsi aurreko tramitazioa egin da.

Trafikoko Burutza Nagusiarekin eta hainbat tokiko erakunderekin 29 lankidetz-hitzarmen sinatu dira, bide-segurtasunaren arloko informazioa trukatzeko eta datu-baseetara sarbidea izateko.

Hainbat tokiko erakunderekin 17 lankidetz-hitzarmen sinatu dira, trafikoko zehapen-prozeduratik eratorritako egintzak bide elektronikoak erabiliz jakinarazteko.

## BIDE-SEGURTASUNA ETA TRAFIKOA IKERTZEA

### IKERKETA-PROIEKTUAK

Trafiko Zuzendaritzak, Ikerketa arloaren bitartez, Trafikoari buruzko azterlan hauek egin ditu:: Amurrio-Saratxo-Larrinbe, Ordizia, Santikurutze Kanpezu.

Halaber, Bide Segurtasun eta Mugikortasun Seguru eta Iraunkorreko 2015-2020 Plan Estrategikoaren jarraibideen arabera, udalerrri txikietarako eta oso txikietarako Bide-Segurtasunari buruzko planak egin dira: Laguardia, Markina, Zestoa.

2016an zehar Ikerketa arloak proiektu hauek aztertu ditu: Ikerketa-, garapen-, ITS-proiektuak...: Radar mugikorraren salaketan prozesua automatizatzea, garraio berezien kudeaketarako eta kontrolerako tresna berri bat garatzea (proiektuaren lehen zirriborroa), zirkulazioaren arintasuna ebaluatzeke tresna garatzea (1. fasea), bide-segurtasunari buruzko azterlanak egiteko tresna garatzea (1. fasea).

## PROGRAMA EUOPARRETAN PARTE HARTZEA

Trafiko Zuzendaritzak bide-segurtasunarekin eta mugikortasun seguru eta iraunkorarekin lotutako hainbat programa europarretan parte hartzen du. Horri dagokionean, 2016an CEF-Arku Atlantiko proiektuaren inguruko bilerak egin dira: Dublin, Roma, Londres.

## BIDE-PRESTAKUNTZA ETA BIDE-HEZIKETA

Sentsibilizazioa, heziketa eta prestakuntza beharrezkoak dira bide-segurtasun handiagoa eta mugikortasun seguru eta iraunkoraren aldeko herritarren kontzientziario handiagoa lortzeko.

- **“Ikasgelan, bide-arriskuen prebentzio-ikastaroak”** on line, Hezkuntza Saileko Prest Gara programaren barrukoak eta Trafiko Zuzendaritzaren ikasgela birtualean egindakoak. 3 ikastaro (66 parte-hartzaile).
- **Mintegi eta tailerrak, unibertsitatetik kanpoko hezkuntza sistemaren barruko ikastetxeei zuzendua:** 44 ekintza (293 parte-hartzaile).
- **Eskolako agenda 2016/17:** 75.000 ale Lehen Hezkuntzako bigarren eta hirugarren zikloko ikasleentzat.
- **“Don’t be dummy”** programarako ikus-entzunezko materiala lantzea.
- **Ikastetxeetako sarrera eta irteerarako segurtasun-dekalogoak,** familientzat, ikasleentzat eta ikastetxeetako zuzendaritza-taldeentzat.
- **Mugikortasun segururako hezkuntzarekin lotutako jarduerak lantzea, curriculumeko gaien araberrakoa, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako:** Matematikari eta mugikortasun seguruari buruzko 10 jarduera, DBHko bi zikloetarako. Mugikortasun seguruarekin lotutako jarduera interaktiboak lantzea, ikasgeletan aplikatzeko.
- **“Gerta dakizuke / Te puede pasar” programa:** Bigarren Hezkuntzako zentroetan istripuei buruzko 205 testigantza-saio (11.293 parte-hartzaile).
- **“Norabide aldaketa / Cambio de sentido” antzerki-forum programa.** 33 antzerki-saio DBHko ikastetxeetan (991 parte-hartzaile).
- **“Gazteak eta gidatzea / Jóvenes y conducción” txapelketa:** Mugikortasun seguruaren eta iraunkorren aldeko mezuak zituzten bideo-selfien txapelketan 59 parte-hartzaile.
- **“Road Show” programa:** Vitoria-Gasteizen bi saio (600 gazte bertaratu ziren).
- Gizarte- eta hezkuntza-arloko eragileen eguneroko jardueran mugikortasun segurua sustatzea.
- **1. mailako ikastaroa udaltzaintzat:** 2 ikastaro erdipresentzial (21 parte hartzaile).
- **Ertzaintzako boluntarioen ikastaroa:** 2 ikastaro erdipresentzial (24 parte hartzaile).





- **Monitoreak izango diren prestatzaileentzako mintegiak, Trafiko Zuzendaritzaren baliabideen katalogoan jasotzen den mugikortasun segururako hezkuntzari buruzko materiala aurkezteko:** 6 saio (75 parte-hartzaile).
- **“Hasieratik seguru / Seguridad desde el comienzo” zabalkunderako materiala.** Emaginen eta pediatriako kontsultetan banatzen da, Osakidetzako ESlen bitartez.
- **Bide-segurtasunaren inguruko programazioak, hainbat talderentzat, Ertzaintzaren “komunikazioaren bitartez prebenitzea” ekimenaren barruan txertatzeko:** 4 programazio, 3 eskolako sistemari zuzenduak eta bat adinekoei zuzendua.
- **Motor-gidarietzako gida:** Motor-gidarietzako seguru gidatzeko gidak YouTube kanalean argitaratu diren bi bideo ditu.
- **“Seguru baietz/ Sí, seguro” programa:** 35 saio kamioi batean eta 5.000 biztanletik beherako udalerrietan karpak. “Pausoz pauso, seguru / Seguridad paso a paso” programa: 30 hitzaldi-saio adinekoentzako zentroetan.
- **Motozikletak seguru gidatzeko ikastaro teoriko-praktikoak:** 4 ikastaro (65 parte-hartzaile).
- **Laneko bide-arriskuen prebentzioari buruzko ikastaroak:** 9 ikastaro (199 parte-hartzaile).
- **Urrutiko irakaskuntzaren eta presentzialaren faseak:** 43 parte hartzaile, 13 pertsona sartu dira irakaskuntza presentzialaren fasean.
- **Bide-prestakuntzako irakasleentzako ikastaroaren deialdia. Aldez aurretiko hautaketa-proba:** ikastaroa eskatu dutenetatik 63k gainditu dute sarrera-proba. Gidari-eskola partikularren zuzendarientzako deialdia-2016: hautaketa-proba.

## TRAFIKOKO ARRETA-ZERBITZUA 011

011 trafikoari buruzko informazio-telefonoa da. Zerbitzu horren bidez herritarrei informazio hauek ematen zaizkie: Euskadiko errepideetako zirkulazioaren egoera, gertakariak, murrizketak eta Euskadiko bide sareko trafikoaren egoerarekin zerikusia daukan informazio guztia.

### 2016ko datuak

011K JASOTAKO DEIAK:



**41.130**

**KONTSULTAK**



## NEGUKO BIDEZAINZA PLANA

Neguko Bidezaintza Planak administrazioen arteko lana koordinatzen du. Guztira, hirurehun baliabide mugikor baino gehiago daude (elurra kentzekoak, patruilak, laguntza- eta zaintza-ibilgailuak). Foru Aldundiek eta autobideek elurra kentzeko makinak mugiarazten dituzte eta koordinazio- eta zaintza-lanetarako laguntza-ibilgailuak ere izaten dituzte. Euskadiko Trafikoa Kudeatzeko Zentroak, bere aldetik, tona handiko ibilgailuak kentzeko zazpi garabi astun aktibatzen ditu eta Ertzaintzak operatiboaren esku jartzen ditu Trafikoko Unitateen patruilak. Horien kopurua handiagoa izaten da fase operatiboan eta Ertzain-etxeetako baliabideen laguntza ere jaso dezaket.

2016an 11 aldiz aktibatu zen Neguko Bidezaintza Plana, jarraipen- eta informazio-fasean (elur-kota 1000 metrotik behera). 8 aldiz igaro zen fase operatibora, elur-kota 700 m-tik beherakoa izateagatik.

Baliabide hauek mobilizatu ziren: Foru Aldundien eta Autobideen elurra kentzeko makinak (166); Trafiko Zuzendaritzaren Garabi Astunak (7) eta Bide Koordinaziorako postuak (8 patruila eta horietako bakoitzean ertzain bat eta Errepideak Artatzeko teknikari bat, elkarrekin 3 lurralde historikoetan errepideen egoera ebaluatzeko).





## OPORRETAN IRTEERA ETA ITZULERA OPERAZIOAK

**2016ko Aste Santuan, Pazko Astelehenean, Armiñonen seinalizazio-operatibo bat egin zen, Irungo noranzkoan, AP-1 eta A-1-en arteko lotunean (konoen eta trafiko- seinaleen bitartez, A-1eko errei bat AP-1i uzten zaio, zirkulazio-fluxu handia daukalako).**

Udan seinalizazio-operatiboak irteera-operazioan, uzta-laren 22,23,29,30 eta 31n eta abuztuaren 5 eta 6an, AP-1 eta N-622ren arteko lotunean, Etxebarri-Ibiñan, Vitoria-Gasteizko noranzkoan (konoen eta trafiko-seinaleen bitartez, N-622ko errei bat AP-1eko irteerari uzten zaio, zirkulazio-fluxu handia daukalako) eta N-622 eta A-1-en arteko lotunean, Burgos/Madrileko noranzkoan (konoen eta kartelen bitartez, A-1eko errei bat uzten zaie N-622tik sartzen direnei, zirkulazio-fluxu handiagatik).

Itzulera operazioan, Armiñonen seinalizazio-operatiboa (Aste Santuan jartzen den berdina).

Gainera, urtero (2016an ere bai) udan zirkulazio-dentsitate handieneko data berezietan, Ertzaintzaren helikoptero-unitate batek zirkulazio-zailtasun handieneko guneak zaintzen ditu eta kameraz grabatutako irudiak denbora errealean ETKZra bidaltzen ditu.





# 1.2

## BIDE-SEGURTA- SUNARI BURUZKO JARDUNALDIAK



Estefanía Beltrán de Heredia, Segurtasun Sailburua eta Garbiñe Saez Molinuevo, Trafiko zuzendaria (2013-2016).

### BIDE-SEGURTASUNA ETA MUGIKORTASUN SEGURUA LAN ARLOAN (OSALANEKIN BATERA): GIDAREN AURKEZPENA

Trafiko-istripuek kalte larriak eragiten dituzte, kalte pertsonalak zein ekonomikoak, eta beraz, segurtasunaren eta osasun publikoaren arloan garrantzi handiko arazoak dira. Hori dela eta, Laneko Bide-segurtasuna funtsezkotzat jo behar da; izan ere, langileen segurtasun- eta osasun-baldintzak hobe daitezen lortzeko, elementu horren gainean eragin behar da.

Horren guztiaren ondorioz, Segurbide proiektua jaitu da, Laneko Bide-segurtasuna enpresaren prebentzio-sistemaren barruan, hau da, Prebentzio Planaren barruan, txertatzeko prozesuaren inguruko kontuei erantzuteko beharra baitzegoen.

Hori dela eta, tresna praktikoa eta erraza sortzen saiatu gara, gure enpresa txikiei, bereziki, Laneko Bide-Segurtasunarekin lotutako prebentzio-jardueri ekiteko erraztasunak emango dizkiena. Horri esker lortu nahi da, gai tekniko, ekonomiko eta prebentiboak batera integratzea, lan baldintzak hobetzeko helburuarekin. Tresna hori jardunaldian aurkeztu zen.

### TRAFIKO ISTRIPUAK PREBENITZEARI ETA IKERTZEARI BURUZKO JARDUNALDIA

Ekainaren 8an, Bilboko Euskalduna Jauregian, Trafiko Zuzendaritzak antolatutako jardunaldi profesional bat egin zen, trafiko-istripuen prebentzioan, ikerketan eta tratamenduan sakontzeko helburuarekin.

#### PARTE HARTU ZUTEN



11

HIZLARIAK



# 1.3

## SARE SOZIALAK ETA WEB-ORRIA



**TWITTER**

**JARRAITZAILEAK**

13.800

**TXIOAK**

48.600

[@trafikoaEJGV](https://twitter.com/trafikoaEJGV)



**YOUTUBE**

**BISUALIZAZIOAK**

68.967

**IGOTAKO BIDEOAK**

55

**HARPIDEDUNAK**

111

[www.youtube.com/TrafikoaEJGV](https://www.youtube.com/TrafikoaEJGV)



**APP  
TRAFIKOAEJGV**

**DESKARGA-KOPURUA GUZTIRA**

2.551




## WEB WWW.TRAFIKOA.EUS

Web-orriak bisita gehien izaten ditu muturreko meteorologia dagoenean: elurteak, izotza... etab. Edo prentsari kanpainak aurkezten zaizkionean. 2016an, webgunera egindako sarrerak hauek izan dira:

### TAULA | BISITAK WEB TRAFIKOA 2016

	SARRERAK GUZTIRA	EGUNAREN BATEZ BESTEKOA
URTARRILA	303.866	9.802,13
OTSAILA	427.934	14.756,34
MARTXOA	768.824	24.800,77
APIRILA	522.950	17.431,67
MAIATZA	584.654	18.859,81
EKAINA	544.138	18.137,93
UZTAILA	701.236	22.620,52
ABUZTUA	754.034	24.323,68
IRAILA	557.447	18.581,57
URRIA	572.478	18.467,03
AZAROA	647.761	21.592,03
ABENDUA	630.521	20.339,39

### GRAFIKOA | BISITAK WEB TRAFIKOA 2016



# 1.4

## HEDABIDEAK

### INFORMAZIOA

Trafiko arloan herritarrei informatzea funtsezkoa da. Horren haritik, bide-segurtasunarekin lotutako hainbat arlori buruzko azterlanak, gidak eta material didaktikoak argitaratu eta banatzeaz gain, hedabideak informatzeko ez ezik formatu ezberdinetan dauden publizitate-kanpainen bitartez sentsibilizatzeko ere funtsezkoak dira.

2016an 28 prentsa-ohar egin dira, 4 prentsaurreko eta 135 datu-eskaera, elkarriketa eta txosten hedabideetarako.

### 2016KO PUBLIZITATE-KANPAINAK

- **Badugu arriskuen berri. Arduratsuak izan gaitezten.** (Alkohola eta drogak)
- **Badugu arriskuen berri. Arduratsuak izan gaitezten.** (Harapatzeak)
- **Badugu arriskuen berri. Arduratsuak izan gaitezten.** (Arreta galtzea)
- **Badugu arriskuen berri. Arduratsuak izan gaitezten.** (Abiadura)
- **Trafiko-istripuetako biktimak Oroitzeko Munduko Eguna.**
- **Arreta eta errespetua.** (Motor-gidariak)

**MUGIKORRARI BEGIRA,  
EZ DUZU ERREPIDEA IKUSTEN.**

**SI MIRAS AL MÓVIL,  
NO VES LA CARRETERA.**

CONOCEMOS LOS RIESGOS.  
SEAMOS RESPONSABLES.

BADUGU ARRISKUEN BERRI.  
ARDURATSUAK IZAN GAITEZEN.







# 1.5

## ARGITALPENAK

## MONOGRAFIKOAK ETA AZTERLANAK

---

Erabiltzaileei buruzko liburuxkak, materialak eta azterlanak egin dira eta berehala argitaratuko diren hainbat monografiko ere bai.

## KANPAINAK

---

- Alkoholarekin lotutako iragarkiak. **“Topa egiten baduzu, ez gidatu”**.
- **“Badugu arriskuen berri. Arduratsua izan gaitezten”** bost gai.
- Bide-segurtasunari buruzko mezuak dituzten koste txikiko bideoak, Twitterren bidez zabaltzeko.
- **Trafiko-istripuetako biktimak Oroitzeko Munduko Eguna**.
- Webgunearen eguneratzea, Twitter, Irekia-ko eta Euskadi.net-eko postontzietan jasotakoei erantzutea.
- Kolektibo kalteberei buruzko kanpaina/jardunaldia.







ARRETARIK  
EZ GALDU  
MUGIKORRARE







EUSKADIKO ERREPIDEETAKO  
ISTRIPU-TASAREN

BALANTZEA,  
2016AN

# 2.1

## ERTZAINZAREN BALANTZEA

2016. urtean Ertzaintzak Euskadiko errepideetan 8.085 trafiko-istripu erregistratu ditu. Horietatik 2.483 istriputan biktimak egon ziren eta 5.602 istriputan ez zen biktimarik egon. Istripu horietan 13.876 ibilgailu eta 15.271 pertsona egon ziren inplikaturik. Pertsona horietatik 39 hil ziren, 267 larri zaurituta atera ziren eta 3.174 zauri arinekin.


1. taulan ikusten den moduan, biktimak eragin dituzten zein biktimarik eragin ez duten istripuen kopurua eta inplikaturik egon diren ibilgailuen eta pertsonen kopurua 2015ean baino handiagoak dira, baina hildakoen kopurua txikiagoa, %11,4 jaitsi baita eta larri zaurituena ere %6,3 jaitsi da.

Horrez gain, adierazle guztien azken urteetako bilakaerak, eta 2014ko hildakoak kontuan hartu gabe ere, ezbehar-tasaren beherazko joera argia adierazten jarraitzen du, 1. taulan ikusten den moduan.

Egia da, 1. grafikoak adierazten duen moduan, biktimak eragin dituzten istripuen serieak, bideko ezbehar-tasarekin lotutako serie guztien artean estatistikoki fidagarriena baita, 2001etik aurrera beherazko joerari eusten diola, baina egia ere bada joera horri eustea gero eta zailagoa dela, oso behean dagoen atalase batera heldu delako.

### 1. TAULA | TRAFIKO ISTRIPUAK 2016AN

	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	DIF % 2016-2015
<b>ISTRIPUAK GUZTIRA</b>	8.206	8.406	8.139	8.323	7.883	7.300	8.085	10,8
Biktimadun istripua	2.543	2.511	2.267	2.307	2.292	2.228	2.483	11,4
Biktimarik gabeko ist.	5.663	5.895	5.872	6.016	5.591	5.072	5.602	10,4
<b>INPLIKATUTAKO IBIL.</b>	14.480	14.594	12.180	13.959	13.469	12.632	13.876	9,8
<b>INPLIKATUTAKO PERTS.</b>	18.126	16.059	15.210	15.278	14.866	14.009	15.271	9,0
Hildakoak	52	52	50	46	24	44	39	-11,4
Zauritu larria	328	295	289	293	257	285	267	-6,3
Zauritu arinak	3.269	3.230	2.938	2.957	2.928	2.778	3.174	14,3

**GRAFIKOA** | BIKTIMADUN ISTRIPUEN GARAPENA EUSKADIKO ERREPIDEETAN


2016an zehar Euskadiko errepideetan gertatutako trafiko-istripuen ezaugarri dagokienez, esan behar da urtero aldaketa txikiekin errepikatzen direla. Azpimarratu beharreko ezaugarriak hauek dira:

- Istripua izan duten hamar pertsonatik zazpi gizonezkoak izan dira, eta hiru emakumezkoak. Biktimak eragin dituzten istripuen kasuan, gizonezkoen ehunekoa apur bat behera egin du, 5 puntu, eta emakumezkoenak apur bat gora. Hildakoak eragiten dituzten istripuen kasuan, ordea, gizonezkoen ehunekoa %78ra igo da eta emakumezkoena jaitsi.
- Errepideetako trafiko-istripuetan inplikaturik egon diren pertsonen %24 35 eta 44 urte bitartekoak izan dira; %20 25 eta 34 urte bitartekoak, %20 45 eta 54 urte bitartekoak, %14 15 eta 24 urte bitartekoak, %12 55 eta 64 urte bitartekoak, %7 65 urtetik gorakoak eta, azkenik, %3 15 urtetik beherakoak. Azpimarratzekoa da 2016an errepideetako istripuetan inplikaturik egon diren pertsonen adinaren araberako banaketa hau ez dela asko aldatu, aurreko urteetan istripua izan zuten adinaren araberako banaketaren aldean.
- Istripua izan duten pertsonen %80 gidariak izan dira, %19 bidaiariak eta %1 oinezkoak.
- Inplikaturik ibilgailuen %66 turismoak izan dira, %4 ziklomotoreak edo motozikletak, %3 bizikletak eta gainerakoak, pertsonak edo salgaiak garraiatzen dituzten ibilgailuak izan dira.
- Biktimak eragin dituzten istripuen %47 martxan zeuden bi ibilgailuren arteko talkaren ondorioz gertatu dira, %29 galtzadatik irteteagatik, %6 harrapaketenagatik, %12 iraultketengatik eta gainerako %6 beste istripu mota batengatik. 2016an galtzadatik irteeren ehunekoa jaitsi da eta talkena handitu.
- Bidearen egoerari dagokionez, esan behar da kasuen %55ean lehor eta garbi zegoela, eta gainerako %45ean bidearen gainazalean bidearen egoera baldintzatzen zuen zerbait zegoela: ura, elurra, izotza, olio, etab.
- Istripuen %53 lan-egunetan gertatu dira eta %47 jai-egunetan, jai-egunaren aurreko edo jai-egunaren osteko egunean. Biktimak eragin dituzten istripuetan banaketa berbera mantendu da.
- Biktimak eragin dituzten lau istripuetatik hiru egunez gertatu dira eta bat gauez.
- Istripu guztien %33 eta biktimak eragin dituzten istripuen %25 autobide eta autobietan gertatu dira.
- Istripua izan duten gidariek, oro har, segurtasun-uhala eta kaskoa erabiltzen zuten.



# 2.2


## ERTZAINZAREN ETA UDALTZAINGOEN BALANTZEA

2016 urtean zehar, Euskadiko kale eta errepideetan hildakoak eragin dituzten 43 trafiko-istripu gertatu dira. Horien ondorioz, 46 pertsona (39 Ertzaintzak erregistratutakoak eta 7 Udaltzaingoen erregistratutakoak) mementoan bertan edo 24 ordu igaro gabe hil dira. Guztira, hildakoak eragin dituzten istripuak iaz baino zazpi gutxiago izan dira eta iaz baino zazpi hildako gutxiago ere izan dira.

Hildakoen kopurua, 2015. urtekoaren aldean, txikiagoa da, Gipuzkoan batez ere, 15 hildako gutxiago egon dira eta. Adibidez, Ertzaintzak 2001 urtetik aurrera erregistratu

dituen trafiko istripuengatik hildakoen bilakaerari begiratzen badiogu, 2. grafikoan dugu jasota, argi ikusten da 2015ean hildakoen kopurua handitu zela eta 2016an berriz ere beherazko joera egon dela. Bazirudien beherazko joera hori 2010etik aurrera ezin zela txikiagoa izan hiru lurralde historikoetan.

### 2. GRAFIKOA | ERTZAINZAK ETA UDALTZAINGOEN JASOTAKO TRAFIKO ISTRIPUAN HILDAKO PERTSONEN GARAPENA



## ISTRIPUEN TIPOLOGIA

- Hildakoen %67 gidariak izan dira (%3 bizikleta-gidariak, %36 motor-gidariak eta %61 turismo-gidariak edo beste ibilgailu baten gidariak), %11 bidaiariak izan dira (Denak turismoan eta bakar bat motorrean) eta gainerako %22ak oinezkoak izan dira (zortzi turismo batek harrapatuta, bat trakzio-kamioi batek harrapatuta eta beste bat furgoneta batek harrapatuta).
- Hildakoak eragin zituzten istripuen %38 "galtzadatik ateratzeagatik" gertatu ziren, %37 "talkengatik" eta %25 "harrapatzeengatik".
- Hildako hamar pertsonatik bederatzi gizonezkoak izan dira eta emakumezko bat. Desoreka hori are handiagoa izan da gidarien artean; izan ere, hil ziren 31 gidaritatik bakar 1 zen emakumea.
- 2016an hildakoen tipologia 2015ean hildakoen tipologiarekin alderatzen badugu, nabarmena da bidaiarien (-5) eta oinezkoen (-3) pisua txikitu dela eta gidariena handitu (+1).
- Euskadin trafiko-istripuak 30 urtera artekoen lehenengo heriotza-kausa izaten dira, 40 urtera artekoen hirugarren heriotza-kausa eta 50 urtera artekoen hamargarrena.

### HERIOTZEN PORTZENTAJEA

| MOTAREN ARABERA |



**61%**

**TURISMO-GIDARIAK/  
BESTE IBILGAILU BATEN GIDARIAK**



**3%**

**BIZIKLETA-GIDARIAK**



**36%**

**MOTOR-GIDARIA**



**22%**

**OINEZKO**



**11%**

**BIDAIARIAK**

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

SEGURTASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

[www.trafikoa.eus](http://www.trafikoa.eus)



@TrafikoaEJGV

